

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	URTXINTXA ESKOLA GIPUZKOA
2. Sektorea:	Aisialdia eta Hizkuntza Normalizazioa
3. Langile kopurua:	15-20
4. Webgunea:	https://www.urtxintxa.eus/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Gipuzkoako Urtxintxa aisialdiko heziketa esparruan dinamizazioak, formazioa eta aholkularitza eskaintzen dituen elkarte da.</p> <p>Irabazi asmorik gabeko elkarte honek 1987an hasi zuen bere ibilbidea aisialdiko hezitzaileak formatzen. Geroago, haur eta gazteei zuzendutako egitasmoak gauzatzen hasi zen. Gaur egun, hizkuntza normalizazio, argitalpen eta aholkularitza esparrura zabaldua du bere jarduna.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	ASIER GOROSTEGI ALIRI
Helbide elektronikoa:	asier.gorostegi@urtxintxa.eus
Telefona:	943270033

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Barne komunikazioa eta kanpo komunikazioa
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Urtxintxan lan egiteko beharrezkoa da euskaraz hitz egiten jakitea. Horrela, gure eguneroko barne komunikazioa euskara hutsean izaten da. Lanak ere euskara hutsean sortzen dira, eta behar izan ezker, bigarren hizkuntza batera itzultzen ditugu.</p> <p>Kanpo komunikazioko lehenengo hitza beti euskaraz izaten da; harrera, telefonoa, mezu elektronikoak... Bulegora deitzen dutenek badakite euskaraz hitz egiteko aukera dutela, eta honekin gurasoaskok saiakera egitea lortzen dugu. Askotan beraiek eroso dauden hizkuntzan hitz egiten dute eta guk euskaraz jarraitzen dugu elkarrizketa.</p>

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA